

AURKIBIDEA

Eguneratzeko agiri honek ondorengo agiriak dauzka:

.- Memoria	6 orrialde
.- Hirigintzako Arauak	76 orrialde
.- I.Eranskina: Hiri-lurzoruaren Ordenantzak.....	50 orrialde
.- Planoak	23 plano

MEMORIA

Udal Araudi Subsidiarioak Berrikusteko dagokion espedientea tramitatuta, Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluaren 2000ko urtarrilaren 18ko Erabakiaren bitartez, zera xedatu zen: Getxo udalerrirako Hiri-antolamenduko Plan Orokorren behin betiko onartzea, udal lurraldeko antolamendu integraleko tresna gisa; HAPOn atal multzoa, beharrezko zuzenketak egin ondoren, Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2001eko uztailaren 23ko 141. zenbakian argitaratu zen.

Indarrean sartu zenetik, hainbat Aldaketa Zehatz izan ditu plangintza-tresna horrek; horietako batzuek egiturazko antolamenduarengan daukate eragina eta beste batzuek antolamendu xehatuarengan eta lurzoruaren araudia unean uneko beharrian eta eskakizunetara egokitzea ahalbideratu dute. Behin aldaketa horiek burututa, ondoren zerrendatzen dira, Udalean erabiltzen diren zenbaki identifikatzaileekin:

.- **02 AZ** Sotoaren solairu kopuruari buruzko 7.4.1 artikulua 3. atalari dagokion Aldaketa Zehatza, martxoaren 26ko 273/2003 zenbakidun Foru Aginduaren bitartez behin betiko onartu zena; Aldaketaren ondoriozko araudia Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2003ko apirilaren 29ko 80. zenbakian argitaratu zen eta, esan bezala, Hirigintzako Arauen 7.4.1 artikulua ere dauka eragina.

.- **01 AZ** "Bake-Eder" 6 zenbakidun Area "Zugazarte" 5 zenbakidun Area integratu eta "Zugazarte" 5.6 Area osatzea helburu duen Aldaketa Zehatza, martxoaren 27ko 275/2003 zenbakidun Foru Aginduaren bitartez behin betiko onartu zena; Aldaketaren ondoriozko araudia Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2004ko abuztuaren 23ko 162. zenbakian argitaratu zen eta Hirigintzako arauengana, "Hiri-lurreko Ordenantzak" izeneko I. Eranskinarengana eta 6.2 eta 8 zenbakidun planoengana dauka eragina.

.- **03 AZ** "Alango" izeneko 21.1 Egikaritze-unitateari dagokion Aldaketa Zehatza, maiatzaren 4ko 703/2004 zenbakidun Foru Aginduaren bitartez behin betiko onartu zena; Aldaketaren ondoriozko araudia Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2004ko maiatzaren 21eko 96. zenbakian argitaratu zen eta "Hiri-lurreko Ordenantzak" izeneko I. Eranskinarengana eta 6.3 zenbakidun planoarengana dauka eragina.

.- **06 AZ** "Azkorri" izeneko 45. Areari dagokion Aldaketa Zehatza, apirilaren 4ko 552/2005 zenbakidun Foru Aginduaren bitartez behin betiko onartu zena; Aldaketaren ondoriozko araudia Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2005eko abuztuaren 26ko 162. zenbakian argitaratu zen eta "Hiri-lurreko Ordenantzak" izeneko I. Eranskinarengana eta 6.8 zenbakidun planoarengana dauka eragina.

.- **05 AZ** "Atxekolandeta" izeneko 12. Areari dagokion Aldaketa Zehatza, Punta Begoñako Galeriak kanpoan uztekoa eta 49. banaketa-area sortzekoa, apirilaren 15eko 606/2005 zenbakidun Foru Aginduaren bitartez behin betiko onartu zena; Aldaketaren ondoriozko araudia Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2006ko abuztuaren 15eko 232. zenbakian argitaratu zen eta Hirigintzako arauengana, "Hiri-lurreko Ordenantzak" izeneko I. Eranskinarengana eta 6.2 eta 8 zenbakidun planoengana dauka eragina.

.- **07 AZ** Plan Orokorra indarrean sartzerakoan dauden eraikinetako etxabeetan etxebizitzak egitea ahalbideratzen duen Aldaketa Zehatza, otsailaren 13ko 237/2006 Foru Aginduaren bitartez behin betiko onartu zena; Aldaketaren ondoriozko araudia Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2006ko irailaren 27ko 185. zenbakian argitaratu zen eta Hirigintzako Arauen 6.3.32 eta 7.4.4 artikuluek dauka eragina.

.- **08 AZ** "San Nicolás" izeneko 27.1 Egikaritze-unitatearen esparruari dagokion Aldaketa Zehatza, maiatzaren 12ko 879/2006 zenbakidun Foru Aginduaren bitartez behin betiko onartu zena; Aldaketaren ondoriozko araudia

Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2006ko irailaren 28ko 186. zenbakian argitaratu zen eta "Hiri-lurreko Ordenantzak" izeneko I. Eranskinarengan eta 6.4 eta 8 zenbakidun planoengan dauka eragina.

.- **09 AZ** "Fadura I" izeneko 33. Areari dagokion Aldaketa Zehatza, otsailaren 8ko 211/2007 zenbakidun Foru Aginduaren bitartez behin betiko onartu zena; Aldaketaren ondoriozko araudia Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2007ko otsailaren 22ko 38. zenbakian argitaratu zen eta "Hiri-lurreko Ordenantzak" izeneko I. Eranskinarengan dauka eragina.

.- **10 AZ** "Villamonte" izeneko 22. Areako 14. Etxe-uharteari dagokion Aldaketa Zehatza, otsailaren 8ko 212/2007 zenbakidun Foru Aginduaren bitartez behin betiko onartu zena; Aldaketaren ondoriozko araudia Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2007ko otsailaren 22ko 38. zenbakian argitaratu zen eta "Hiri-lurreko Ordenantzak" izeneko I. Eranskinarengan dauka eragina.

.- **11 AZ** Ostalaritzako erabilerarekin lotutako Aldaketa Zehatza; horrela, Ordenantza zehatz bat kontuan izanda, ostalaritzako jarduera jartzeko eta gauzatzeko baldintzak arautuko dira. Udaleko Osoko Bilkurak 2007ko apirilaren 27an egindako ohiko batzarrean hartutako 83. erabakiaren bitartez behin betiko onartu zen; Aldaketaren ondoriozko araudia Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2007ko uztailaren 12ko 137. zenbakian argitaratu zen eta Hirigintzako Arauen 6.3.48 artikulua ere dauka eragina.

.- **12 AZ** Justizia Jauregiko partzelari lotutako Aldaketa Zehatza, Udaleko Osoko Bilkurak 2008ko urriaren 31n egindako ohiko batzarrean hartutako 172. erabakiaren bitartez behin betiko onartu zena; Aldaketaren ondoriozko araudia Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2009ko urtarrilaren 9ko 5. zenbakian argitaratu zen eta Hirigintzako Arauen 6.3.31 artikulua ere dauka eragina.

.- **13 AZ** "Getxo Antzokia" Eraikina kokatzen den partzelarako Aldaketa Zehatza, Udaleko Osoko Bilkurak 2008ko urriaren 31n egindako ohiko batzarrean hartutako 173. erabakiaren bitartez behin betiko onartu zena; Aldaketaren ondoriozko araudia Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2009ko urtarrilaren 9ko 5. zenbakian argitaratu zen eta Hirigintzako Arauen 6.3.31 artikulua ere dauka eragina.

.- **21 AZ** "Sarri" izeneko 30. Arearako Aldaketa Zehatza, Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak, 523/00-2 zenbakidun Administrazioarekiko Auzi-errekurtsoa ebatziz, 2004ko urtarrilaren 16an emandako 17 zenbakidun epaia betetzeko; Udaleko Osoko Bilkurak 2008ko urriaren 31ko ohiko batzarrean hartutako 174. erabakiaren bitartez behin betiko onartu zen eta Aldaketaren ondoriozko araudia Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2009ko urtarrilaren 9ko 5. zenbakian argitaratu zen. Aldaketa horrek "Hiri-lurreko Ordenantzak" izeneko I. Eranskinarengan dauka eragina.

.- **15 AZ** "Punta Begoña" izeneko 49. Areari, Hirigintzako Arauen 7.1.13 artikulua ("Sabai-koefizientea kalkulatzeko modua") eta Arriluzeko lurpearen erabilerari lotutako Aldaketa Zehatza, Udaleko Osoko Bilkurak 2008ko urriaren 31n egindako ohiko batzarrean hartutako 175. erabakiaren bitartez behin betiko onartu zena; Aldaketaren ondoriozko araudia Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2009ko urtarrilaren 9ko 5. zenbakian argitaratu zen eta Hirigintzako Arauen 7.1.13 artikulua eta Hamargarren Tituluarengan, "Hiri-lurreko Ordenantzak" izeneko I. Eranskinarengan eta 6.3 zenbakidun planoengan dauka eragina.

.- **16 AZ** Burutzen ari den lurzoru urbanizagarriari lotutako Aldaketa Zehatza; lurzoru hori hiri-lurzorutzat hartzen da, bost banaketa-area berri sortuz, euren fitxeekin. Otsailaren 27ko 261/2009 zenbakidun Foru Aginduaren bitartez behin betiko onartu zen eta Aldaketaren ondoriozko araudia Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2009ko martxoaren 30eko 60. zenbakian argitaratu zen; Hirigintzako Arauen Bederatzigarren Tituluaren lehenengo artikulua ere dauka eragina, "Hiri-lurreko Ordenantzak" izeneko I. Eranskinarengan eta 3, 6.4, 6.5, 6.6, 8 eta 9 zenbakidun planoengan dauka eragina.

.- **17 AZ** Hirigintzako Arauen "Eraikuntzaren Babes Araubidea" izeneko Hamaikagarren Tituluarekin lotutako Aldaketa Zehatza, Udaleko Osoko Bilkurak 2009ko apirilaren 27an egindako ohiko batzarrean hartutako 71. erabakiaren bitartez onartu zena; Aldaketaren ondoriozko araudia Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2009ko maiatzaren 22ko 95. zenbakian argitaratu zen eta Hirigintzako Araudiaren XI. Tituluarengan eta 6.1, 6.2, 6.3, 6.4, 6.5, 6.6, 6.7, 6.8 eta 11 zenbakidun planoengan dauka eragina.

- 14 AZ** "San Nikolas" izeneko 27 zenbakidun Arearako ("Antzokia" eta San Nikolas plaza) Aldaketa Zehatza, Udaleko Osoko Bilkurak 2009ko ekainaren 26n egindako ohiko batzarrean hartutako 110. erabakiaren bitartez behin betiko onartu zena; Aldaketaren ondoriozko araudia Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2009ko uztailaren 21eko 137. zenbakian argitaratu zen eta eta 4 eta 6.4 zenbakidun planoengan dauka eragina.
- 18 AZ** Areetako Azokarako eta Hirigintzako Arauen 7.4.6 artikuluentzako ("Gutxieneko altuerak") Aldaketa Zehatza, Udaleko Osoko Bilkurak 2009ko ekainaren 26an egindako ohiko batzarrean hartutako 111. erabakiaren bitartez behin betiko onartu zena; Aldaketaren ondoriozko araudia Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2009ko uztailaren 21eko 137. zenbakian argitaratu zen eta Hirigintzako Arauen 7.4.6 artikulueengan dauka eragina.
- 19 AZ** Zugazarte Etorbideko 32. zenbakian dagoen Bake-Eder finkarako Aldaketa Zehatza, Udaleko Osoko Bilkurak 2009ko ekainaren 26an egindako ohiko batzarrean hartutako 112. erabakiaren bitartez behin betiko onartu zena; Aldaketaren ondoriozko araudia Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2009ko uztailaren 21eko 137. zenbakian argitaratu zen eta Hirigintzako arauengan, "Hiri-lurreko Ordenantzak" izeneko I. Eranskinarengan eta 6.2 zenbakidun planoarengan dauka eragina.
- 29 AZ** Ribera kaleko 40. zenbakian dagoen partzelari dagokion Aldaketa Zehatza, ezarritako eraikuntza baten diseinuarekin, Udaleko Osoko Bilkurak 2009ko irailaren 23an egindako ohiko batzarrean hartutako 151. erabakiaren bitartez behin betiko onartu zena; Aldaketaren ondoriozko araudia Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2010eko urriaren 27ko 207. zenbakian argitaratu zen eta "Hiri-lurreko Ordenantzak" izeneko I. Eranskinarengan eta 6.4 zenbakidun planoarengan dauka eragina.
- 28 AZ** "Ormaza" izeneko 42 zenbakidun Arearako Aldaketa Zehatza, Udaleko Osoko Bilkurak 2009ko irailaren 23an egindako ohiko batzarrean hartutako 152. erabakiaren bitartez behin betiko onartu zena; Aldaketaren ondoriozko araudia Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2010eko abenduaren 27ko 247. zenbakian argitaratu zen eta Hirigintzako Arauen X. Tituluko V. Kapituluako erabileretarako ponderazio-koefizienteen taula erlatiboarengan, "Hiri-lurreko Ordenantzak" izeneko I. Eranskinarengan eta 6.5 zenbakidun planoarengan dauka eragina.
- 20 AZ** "Erromo" izeneko 8 zenbakidun Arean diseinatutako 3 zenbakidun eraikuntza (Zentro Zibikoa) sartzeko Aldaketa Zehatza, Udaleko Osoko Bilkurak 2009ko abenduaren 23an egindako ohiko batzarrean hartutako 240. erabakiaren bitartez behin betiko onartu zena; Aldaketaren ondoriozko araudia Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2010eko urtarrilaren 20ko 12. zenbakian argitaratu zen eta "Hiri-lurreko Ordenantzak" izeneko I. Eranskinarengan eta 6.1 eta 6.2 zenbakidun planoengan dauka eragina.
- 22 AZ** "Hiri-lurzoruaren eta Lurzoru Urbanizagarriaren Antolamendua" izeneko 6.2. zenbakidun planoari eta "Babestutako Elementuak" izeneko 11. planoari dagokien Aldaketa Zehatza, Makaleta Etorbideko 19. zenbakiko higiezinan dauden lau zuhaitzak ez daitezen babestutako zuhaitzi bezala grafiatuta azaldu; Udaleko Osoko Bilkurak 2010eko otsailaren 26an egindako ohiko batzarrean hartutako 22 zenbakidun erabakiaren bitartez behin betiko onartu zen eta Aldaketaren ondoriozko araudia Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2010eko martxoaren 25eko 57. zenbakian argitaratu zen; esan bezala, 6.2 eta 11 zenbakidun planoengan dauka eragina.
- 24 AZ** "Atxekolandeta" izeneko 12 zenbakidun Arearako Aldaketa Zehatza (Joaquín Arizaga-Ereagako Jaitsiera kalearen irekiera), Udaleko Osoko Bilkurak 2010eko maiatzaren 28an egindako ohiko batzarrean hartutako 82. erabakiaren bitartez behin betiko onartu zena; Aldaketaren ondoriozko araudia Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2010eko abenduaren 27ko 247. zenbakian argitaratu zen eta "Hiri-lurreko Ordenantzak" izeneko I. Eranskinarengan eta 6.3 eta 8 zenbakidun planoengan dauka eragina.
- 23 AZ** "Sarrikobaso" izeneko 31 zenbakidun Arearako Aldaketa Zehatza, Salsidu Etorbideko 15. zenbakiarengan eragina daukana; aldaketaren ondorioz, eraikuntza berria diseinatu zen, 6. zenbakia, B+3 altuerarekin eta 377,22 metro koadroko azalera eraikigarriarekin. Udaleko Osoko Bilkurak 2010eko ekainaren 25ean egindako ohiko batzarrean hartutako 105 zenbakidun erabakiaren bitartez behin betiko onartu zen eta Aldaketaren ondoriozko araudia Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2010eko abuztuaren 4ko 148. zenbakian argitaratu zen; "Hiri-lurreko Ordenantzak" izeneko I. Eranskinarengan eta 6.4 zenbakidun planoarengan dauka eragina.

.- **25 AZ** Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea garatzeko presako neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuaren 45. artikuluan aurreikusten denarekin bat etorriz, nagusiki bizileku-erabilera duten eraikuntzetan, irisgarritasuna gauzatzeko beharrezko zerbitzuak eta instalazioak eguneratzera bideratutako desjabetzeko aukera jasotzeko Aldaketa Zehatza, Udaleko Osoko Bilkurak 2010eko uztailaren 29an egindako ohiko batzarrean hartutako 125 zenbakidun erabakiaren bitartez behin betiko onartu zena; Aldaketaren ondoriozko araudia Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2010eko abuztuaren 6ko 150. zenbakian argitaratu zen eta Hirigintzako Arauen 7.2.4 artikulua eragin da.

.- **27 AZ** "Zubilleta" izeneko 36 zenbakidun Arearako Aldaketa Zehatza, Udaleko Osoko Bilkurak 2010eko abenduaren 23an egindako ohiko batzarrean hartutako 207 zenbakidun erabakiaren bitartez behin betiko onartu zena; Aldaketaren ondoriozko araudia Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2011ko urtarrilaren 18ko 11. zenbakian argitaratu zen eta "Hiri-lurreko Ordenantzak" izeneko I. Eranskinarengan eta 2, 4, 6.4 eta 8 zenbakidun planoarengan dauka eragina.

.- **30 AZ** 7.1-"Santa Eugenia", 5.6.1-"Zugazarte" eta 21.1-"Alango" Egikaritze-unitateetarako Aldaketa Zehatza, Udaleko Osoko Bilkurak 2011ko urtarrilaren 28an egindako ohiko batzarrean hartutako 12 zenbakidun erabakiaren bitartez behin betiko onartu zena; Aldaketa Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2011ko maiatzaren 11ko 89. zenbakian argitaratu zen eta Hirigintzako arauarengan, "Hiri-lurreko Ordenantzak" izeneko I. Eranskinarengan eta 6.1, 6.2, 6.4, 8 eta 10 zenbakidun planoarengan dauka eragina.

.- **32 AZ** Ekipamendu publikoen sestra azpiko erabilerekin lotutako MECSAk idatzitako Aldaketa Zehatza, Hirigintzako Arauen 6.3.29, 7.4.1 eta 7.4.6 artikuluek eragin daude eta 7.3.4.1 artikulua berria idazten duena; Udaleko Osoko Bilkurak 2011ko martxoaren 25ean egindako ohiko batzarreko 54 zenbakidun erabakiaren bitartez onartu zen eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2011ko apirilaren 20ko 77. zenbakian argitaratu zen Aldaketa. Esan bezala, Hirigintzako Arauen 6.3.29, 7.4.1, 7.4.6 eta 7.3.4.1 artikuluek eragin daude.

.- **33 AZ** Bostgarrena kalea oraingo partzelen baldintzetara egokitzeko Aldaketa Zehatza, Udaleko Osoko Bilkurak 2011ko apirilaren 15ean egindako ohiko batzarrean hartutako 78 zenbakidun erabakiaren bitartez behin betiko onartu zena; Aldaketaren ondoriozko araudia Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2011ko maiatzaren 27ko 101. zenbakian argitaratu zen eta 6.5 eta 6.6 zenbakidun planoarengan dauka eragina.

.- **31 AZ** Aldaketa Zehatza "Ormaza" izeneko 42.2 Egikaritze-unitatean, Udaleko Osoko Bilkurak 2011ko apirilaren 15ean egindako ohiko batzarrean hartutako 79 zenbakidun erabakiaren bitartez behin betiko onartu zena; Aldaketa Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2011ko maiatzaren 20ko 96. zenbakian argitaratu zen eta "Hiri-lurreko Ordenantzak" izeneko I. Eranskinarengan eta 6.5 zenbakidun planoarengan dauka eragina.

.- **34 AZ** Kortiñe, Maidagan, Goñi Barri, Aixerrota eta Errotatxu hiri-lurzoruarekiko Aldaketa Zehatza, Udaleko Osoko Bilkurak 2011ko azaroaren 29an hartutako 157 zenbakidun erabakiaren bitartez behin betiko onartu zena; Aldaketa Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2012ko urtarrilaren 16ko 10. zenbakian argitaratu zen eta Hirigintzako arauarengan, "Hiri-lurreko Ordenantzak" izeneko I. Eranskinarengan eta 8 zenbakidun planoarengan dauka eragina.

.- **35 AZ** San Nikolas Areako etxe-uharte batekin lotutako Aldaketa Zehatza, Trinitate eta María Goiri kaleen arteko oinezkoentzako bidearengan eragin daude eta Udaleko Osoko Bilkuraren 2012ko otsailaren 28ko 21 zenbakidun erabakiaren bitartez behin betiko onartu zena; Aldaketa Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2012ko apirilaren 2ko 65. zenbakian argitaratu zen eta 6.4 zenbakidun planoarengan dauka eragina.

Gainera, Hiri-antolamendurako Plan Orokorren Hirigintzako Arauen 1.2.3 artikuluan aurreikusitakoaren babespean, ondorengo erabakiak hartu dira, akats zuzentzeenak (AkZ):

.- **AkZ 01** Udaleko Osoko Bilkuraren 2002ko maiatzaren 31ko 80 zenbakidun Erabakia; horren bitartez, Getxoko Hiri-antolamenduko Plan Orokorrean antzemandako akatsa zuzendu zen, 10 zenbakidun Banaketa-arearen osoa hartzen duen 122.615 metro koadroko azalera duen "Etxezuri" izeneko Egikaritze-unitatea ezabatuz, jarduketak egintzat eman zirelako (Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2002ko ekainaren 25eko 120. zenbakian argitaratua). "Hiri-lurreko Ordenantzak" izeneko I. Eranskinarengan eta 8 eta 6.2 zenbakidun planoarengan dauka eragina.

.- **AkZ 02** Udaleko Osoko Bilkuraren 2003ko uztailaren 24ko 12 zenbakidun Erabakia; horren bitartez, Getxoko Hiri-antolamenduko Plan Orokorrean antzemandako akatsa zuzendu zen; "Santa María-Hiri-lurra" 43. Arearen esparrua berregokitu zen, JUAN ANTONIO MOLINERO FERNÁNDEZ Jaunaren 215,15 metro koadroko lursaila gehituz, partzela-mugekin bat etorritik (Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2003ko abuztuaren 12ko 152. zenbakian argitaratua). 3, 6.5 eta 8 zenbakidun planoengan dauka eragina.

.- **AkZ 03** Udaleko Osoko Bilkuraren 2006ko otsailaren 24ko 19 zenbakidun Erabakia; horren bitartez, Getxoko Hiri-antolamenduko Plan Orokorrean antzemandako akatsa zuzendu zen, Getxoko Andra Mariko hiri-lurraren mugaketa gaur egungo partzela-mugetara egokituz, Basalbo baserriaren inguruetan, Martiturri Estratan (Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2006ko martxoaren 16ko 53. zenbakian argitaratua). 3, 6.5 eta 8 zenbakidun planoengan dauka eragina.

Bestalde, "geroratutako antolamenduko areatzat" jotzen den "ITURRIBARRI-II" izeneko 24 zenbakidun AREARAKO BARNE-ERABERRITZEKO PLAN BEREZIA tramitatu da:

Izan ere, "Iturribarri-II" 24. Arearako aurreikusitako zehaztapenei dagokienez, Plan Orokorrearen onespenerabakiaren aurreko BERRAZTERTZE-ERREKURTSOA deduzituta, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2003ko ekainaren 17ko Erabakiaren bitartez ebatzi zen, partzialki baietsiz. Baieste horrek "Iturribarri-II" 24. Area geroratutako antolamenduko areatzat jotzen du, Plan Berezi baten bitartez garatu beharrekoa, besteak beste, gehienezko etxebizitza kopurua ezarriko duena, egikaritze-unitate bien artean proportzionalki banatu beharreko babes ofizialeko gutxienez 156 etxebizitzaren erreserbarekin.

Dagokion tramitazioa jarraituta, Udaleko Osoko Bilkuraren 2007ko otsailaren 23ko 29 zenbakidun erabakiaren bitartez, zera xedatu zen: "ITURRIBARRI-II" izeneko 24 zenbakidun AREARAKO BARNE-ERABERRITZEKO PLAN BEREZIAREN aurrean deduzitutako alegazioak ebatzi ondoren, agiria behin betiko onartzea.

Erabaki hori Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2007ko maiatzaren 3ko 86. zenbakian argitaratu zen, Planaren Ordenantzekin batera.

"Hiri-lurreko Ordenantzak" izeneko I. Eranskinarengan eta 6.3, 6.4 eta 8 zenbakidun planoengan dauka eragina.

Egikaritze-unitateei dagokienez, adierazi behar da ondorengo egikaritze-unitateak mugarriztatu direla, Hiri-antolamenduko Plan Orokorrearekiko modu autonomoan:

.- 1.1 Egikaritze-unitatea-"Areeta-Erdigunea": Gobernu Batzordeak 2001eko otsailaren 6ko ohiko batzarrean hartutako 84 zenbakidun erabakiaren bitartez behin betiko onartu zena eta, ondoren, 2001eko otsailaren 27ko 172 zenbakidun erabakiaren bitartez zuzendu zena (Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2001eko apirilaren 10eko 71. zenbakian argitaratua). "Hiri-lurreko Ordenantzak" izeneko I. Eranskinarengan eta 6.1 eta 8 zenbakidun planoengan dauka eragina.

.- 29.1 Egikaritze-unitatea- "Arrigunaga": Tokiko Gobernu Batzordearen 2004ko uztailaren 27ko 496 zenbakidun erabakiaren bitartez behin betiko onartu zena (Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2004ko abuztuaren 9ko 152. zenbakian argitaratua). "Hiri-lurreko Ordenantzak" izeneko I. Eranskinarengan eta 6.4 eta 8 zenbakidun planoengan dauka eragina.

.- 26.2 Egikaritze-unitatea- "Usategi": Tokiko Gobernu Batzordearen 2007ko maiatzaren 22ko 378 zenbakidun erabakiaren bitartez behin betiko onartu zena (Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2007ko ekainaren 19ko 120. zenbakian argitaratua). "Hiri-lurreko Ordenantzak" izeneko I. Eranskinarengan eta 6.4 eta 8 zenbakidun planoengan dauka eragina.

Ondorengo egikaritze-unitateen mugarriztatzea ere aldatu da:

.- 11.2 Egikaritze-unitatea- "Neguri": Getxoko Udaleko Gobernu Batzordearen 2003ko martxoaren 18ko 40 zenbakidun erabakiaren bitartez behin betiko onartu zena (Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2004ko urtarrilaren 23ko 15. zenbakian argitaratua). "Hiri-lurreko Ordenantzak" izeneko I. Eranskinarengan eta 6.3 eta 8 zenbakidun planoengan dauka eragina.

.- 27.5 Egikaritze-unitatea - "San Nikolas": Tokiko Gobernu Batzordearen 2006ko urtarrilaren 24ko 56 zenbakidun erabakiaren bitartez behin betiko onartu zena (Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2006ko martxoaren 2ko 43. zenbakian argitaratua). "Hiri-lurreko Ordenantzak" izeneko I. Eranskinarengan eta 6.4 eta 8 zenbakidun planoengan dauka eragina.

.- 11.1 Egikaritze-unitatea- "Neguri": Tokiko Gobernu Batzordearen 2009ko azaroaren 17ko 718 zenbakidun erabakiaren bitartez behin betiko onartu zena (Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 2009ko abenduaren 2ko 231. zenbakian argitaratua). "Hiri-lurreko Ordenantzak" izeneko I. Eranskinarengan eta 6.3 eta 8 zenbakidun planoengan dauka eragina.

Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, 107. artikuluan, honela heltzen dio "Plangintzaren agiriak eguneratzeari":

"1.- Aldaketak izan dituzten planen bertsio osatu eta eguneratuak onartu ahal izango dituzte udalek. Plan orokorrak egiturazko antolamenduan bost aldaketa izan ondoren, ezinbestekoa izango da bertsio berri bat onartzea. Aldaketa horien artean sartuko dira beste plan batzuen zehaztapenen ondorioz egindakoak ere, baldin eta plan horiek legez baimenduta egin badituzte zehaztapenok.

2.- Hirigintza-antolamenduko planen bertsio osatu eta eguneratuak onartu ondoren, dagokion lurralde historiko bakoitzeko hirigintza-plangintzako erregistroan utzi beharko da horien ale bat.

Idazten den agiri honekin, Getxo udalerrirako Hiri-antolamenduko Plan Orokorraren bertsio osatua eta eguneratua eduki nahi da, egon diren Aldaketa Zehatz eta Akatsen Zuzenketa guztiak testu bakarrean batuko dituen eta, onartu ondoren, Bizkaiko Lurralde Historikoko Hirigintzako Plangintzaren Agiritegi Administrazioan gordeko dena.

Aldi berean, Plan Orokorra osatzen zuten agiriek euren artean zeuzkaten desadostasunak ebatzi dira, beti ere, Plan Orokorrak Hirigintzako Arauen 1.2.3 artikuluan eskaintzen dituen irizpideekin bat etorriz.

Horrela, agiri grafikoaren arteko desadostasun kasuetan (2,3,4,7,8,9 eta 11 zenbakidun plano orokorren eta 6. zenbakidun saileko planoaren arteko muga fisikoei dagozkien desadostasunak), xehetasun handiagokoei eman zaie lehentasuna, txikiagokoen aurrean.

Antolamendu Orokorrerako planoek (2,3,4,7,8,9 eta 11 zenbakidunak) Xehetasun Antolamendurakoak (6. zenbakidun saileko planoak) bete dituzte. Saila bien arteko mugen kontraesanak argitzeko, 6. zenbakidun saileko planoak erabili dira. Araudi grafikoaren eta idatzizkoaren arteko kontraesanak beti idatzizko dokumentazioari nagusitasuna emanda ebatzi diren, idatzizko dokumentazio hori ez bada, behintzat, Plan Orokorra osatzen duten planoetatik datozen datuak eta zehaztapenak jasotzera mugatzen direnean.

Hain zuzen ere, "Egitura organikoa eta orotariko erabilerak" deritzan 2. planoak, 6. zenbakidun saileko planoekin koordinatu da, dentsitate berberak adierazteko (Santa Anan, San Joseren Los Rosales, besteak beste)

"Lurzoruaren sailkapena" deritzan 3. planoak zuzendu egin da 6. zenbakidun saileko planoak kontuan izanik. Zuzenketa hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarriaren arteko mugaketari dagokio. Irizpide berbera erabili da "Hiri-lurzoruaren kudeaketa" deritzan 8. planoak eta "Lurzoru urbanizakorraren kudeaketa" deritzan 9. planoak (sektoreen mugaketa) egokitzeko. Lurzoru urbanizagarria eta lurzoru urbanizaezina arteko muga zuzendu da 3 eta 7 zenbakidunen planoetan, 6.7 planoak agindutakoa jarraituz.

"Sistema orokorrak" deritzan 4. planoak 6. zenbakidun saileko planoetan adieraziko azaleetara egokitu da, Zugazartetik datorren errepide ardatza Ereagaraino luzatzeko, adibidez.

XI. Titulua gehitu izanak aipamen berezia merezi du; Udaleko Osoko Bilkurak 2009ko apirilaren 27an hartutako 71 zenbakidun erabakiaren bitartez behin betiko izaeraz onartutako Aldaketa Zehatzaren espedientearen ondorioz idatzitako moduan. Irizpide nagusiak izan dira Getxoko eremu berezia, Monumentu Multzoz izendapenez, Kultura Ondasun deklaratuaren duen maiatzaren 22ko 89/2001 Dekretuaren eta Kultura Ondarearen gainerako xedapenen transposizio zehatzena eta zuzenena egitea, eragindako higiezin eta elementuen identifikazio zehatza bermatuz. 89/2001 Dekretuaren zonaldeak eta zerrendatutako hiri elementuak

6. zenbakidun saileko planoetan eta “Babespeko elementuak” deritzan 11. planoan adierazi dira. Planu horietan Ondare Kulturala Babesteko araudien arabera egindako ebazpenen edukiak jaso dira baita ere.

“Babespeko elementuak” deritzan 11. planoan itsas ukipenak ateratzen ziren (adibidez, itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren mugaketa, Sopelantik Punta Galearaino eta Bilboko Portuko Plan Bereziaren portuko guneen mugaketa). Mugaketa bi horiek aldatuak izan dira eta lerro berriak dokumentu honetan adierazi dira (2000.eko Uztailaren 6an egindako Ministeritza agindua itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoaren mugaketari dagokionez eta FOM/2492/2006 Agindua portuari dagokionez, azken hau 181/2006 zenbakidun BOE-n argitaratua).

Halaber, nabarmentzeko da, hiri-lurzorutzat hartzera pasatzen den burutzen ari den lurzoru urbanizagarriari dagokion Aldaketa Zehatzari dagokionez, kontuan hartu direla tramitatutako Plan Partzialak, Ekitatezko Banaketarako eta Hirigintzako Proiektuak; hor ditugu Aixerrota, Goñi Barri, Maidagan, Errotatxu (lehen Zubilleta-Industrial) eta Kortiñe Areak.

Azkenik, aipatzekoa da dokumentazio grafikoa ezarpen eta erabilera handieneko Autocad sistemara eraldatu dela eta, memoria honetan aipatutako gainerako agiriekin batera, Udalaren web-orrialdean jarriko direla herritarren eskura.

Getxon, 2013-ko Martxoaren 13an.

Izpta. Urko Balziskueta Flórez
*Hiri planemeamenduko Unitatearen
Udal Arkitektoa*

Izpta.Argiñe Encinas Cano
*HAPO-aren Berrikuspenerako
Bulegoaren Arkitekta*

Izpta. Isabel Peral Agirregoitia
*A.O.T. T.A.G. Hiri planemeamenduko Unitatearen
Kordinatzailea.*